




GELA NEURTU

	 10 min
MATERIALA - Musika lasaia	

AZALPENA

Helburua gure gelak zenbat neurtzen duen jakitea da.

Horretarako, gela luzeran nahiz zabaleran neurtuko dugu GORPUTZ NEURGARRI bat erabiliz. Adib. Gorputzak, hankak, besoak ..

Bitartean musika lasaigarri bat entzungo dugu.



GELA SINBOLIZATU

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Ikasgela ozeano erdian itsasoratu den itsasontzi bat dugu... Adib. arrain mota ezberdinak irudikatu, altxorra, etab

Ikasgela harkaitz baten gainean eraikitako gaztelu bat dugu...

Herriko jaietan etorri zaigun zirko pista bat dugu ...



IKASLEAK IRAKASLE

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Arratsaldeko lehen ordu laurdenean “IKASLEAK” “IRAKASLE” gisa arituko dira. Binakako lana izango da eta edozein arlotako proposamenak landu daitezke.

Egutegi bat prestatuko dugu, eta bikote bakoitzaren txandak bertan zehaztuzko ditugu. Datorren astean hasiko gara!! Ongi?



JOLAS LIBREA

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Alfonbraren gainean jostailu sinbolikoak paratu (animaliak, sukaldetresneria, garraioak, pertsonaiak, telefonoa ...). Jolas organizazioari erreparatu.

Zakar poltsa batean jostailu bana sartu. Elkarri pasa eta bakoitzak bat hartzen du. Jolas libreari ekin.

Itxi begiak. Bakoitzari objektu bat jarri. Objektua jolas egiteari lotu.



MAKINAK

	 10 min
MATERIALA: Ø	



AZALPENA

BOSTEKO PAKETEA!! Bost lagunez osatutako taldeak egin. Denen artean makina bat asmatu beharko duzue:

- HEGAZKIN bat, esate baterako. Atalak banatu ondoren, hegazkina martxan jarri.
- Orain, ASMATUTAKO GAILU bat ... zertarako balio duen argitu.
- Geroago, INPROBISAZIO BAT ... bat erdian hasi eta atalez atal osatuz joan.



ZUBI ESTUA

	 10 min
MATERIALA: - Zinta isolatzailea	

AZALPENA

Bi kapitainek, neska batek eta mutil batek txandaka beren taldea aukeratuko dute.

Zinta isolatzailearekin bi lerro paralelo jarriko ditugu lurrian, banku bat bailitza, talde bakoitza mutur banatan kokatuko da.

Erori gabe beste aldera pasa behar dute bi taldeek batera.